



ESEP 2018-2022

euskara

sustatzeko

ekintza

plana

(IV. Plan estrategikoa)
ELGOIBAR



AURKIBIDEA

0. Sarrera

1. Diagnostikoa

- I.1. Datu kuantitatiboak
- I.2. Datu kualitatiboak

2. 2018-2022 Plan estrategikoa

- 2.1. Planaren helburu nagusia.
- 2.2. Helburu estrategikoak eta esparruak.

3. Euskararen erabilera eta hizkuntza eskubideak

4. Helburuak eta estrategiak

5. Ondorio nagusiak: lehenetsitako esparruak

6. Ekintza planean jasotako esparruak eta neurriak

7. Ekintza planaren jarraipena eta ebaluazioa



0. SARRERA

Euskara gure herriaren berezko hizkuntza eta, gaztelaniarekin batera, ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan. Hala, euskal herritar orok du eskubidea euskaraz jakiteko eta edozein esparrutan euskara erabiltzeko. Euskal gizartea etengabe adierazten ari da gizarte elebiduna izan nahi duela, eta, horrenbestez, herri administrazioen egitekoa da herritarrei nahi duten hizkuntza ofizialean aritzeko eta bizitzeko eskubidea bermatzea.

Hori dela eta, Elgoibarko Udalak **hizkuntza politika** definitu eta sustapen politika hori garatzeko **baliabideak** jarriko ditu. Halaber, euskararen eta euskararen erabileraren aldeko **konpromisoa**, **sentsibilizazioa** eta **eredugarritasuna** landuko du.

Zentzu honetan, Elgoibarko Udalak Eusko Jaurlaritzaren gomendioei jarraituta eta bere gidaritzapean sortu zuen lehen aldiz, 2003an, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Harrez gero, Elgoibarko Udalak EAEko udal gehienek bezala, 5 urtetik behin, plan estrategikoak ebaluatu, diseinatu eta onartu ditu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezarritako irizpideei jarraituta.

Elgoibarko Udalak bat egiten du, Jaurlaritzak 2012an onartutako ESEPen jasotako helburu, neurri eta ekintzekin, eta aurkezten den Plan Estrategikoan egiteko horietatik udalerrirako egokienak izan daitezkeenak hautatu dira, Elgoibarko gizarte eragileen ekarpenak kontuan hartuta, eta EMUN Hizkuntza zerbitzuaren eta Elgoibarko Udalaren Euskara Sailaren arteko elkarlana oinarri izanda. Plan Estrategikoa 2018 urtetik 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo da, eta esan bezala, ESEPen proposatutako markoa kontuan hartuta egin da.

Planak datozen bost urteetarako jardunbidea markatzen du, hau da, ditugun mugak kontuan izanda, zein arlotan lan egingo dugun euskararen erabilera sustatzeko. Plana, beraz, ez da mugarri izango aurrerago etor litezkeen egoera berriei aurre egiterako orduan, eta zentzu honetan, malgua da, irekia. Aurrerantzean, herriko elkarte eta taldeek ekarpenak egin ahalko dizkiote, horrela errazago lortuko baita euskararen gero eta presentzia handiagoa izatea Elgoibarren.

Dokumentu honen bidez aurkezten den plana hobeto ulertze aldera, gogorarazi beharra dago, Plan Estrategikoak helburu nagusiak eta azpi helburuak ezartzen dituela, baina horiek lortzeko egingo diren ekintzak urteroko Kudeaketa Planetan zehazten direla. Beraz, dokumentu honetan ez da ekimen edo jarduera zehatzik agertzen.

Gainera, kontuan hartu behar da, urteroko kudeaketa planak elementu biziak direla eta plan estrategiko bati lotuta dauden arren, bien bitartean sortzen diren beharrezan eta aukeren arabera moldatzen direla.



I. DIAGNOSTIKOA

Datozen urteetarako lan ildo nagusiak zehazteko beharrezkoa izan da hausnarketa egitea, batetik, egoera soziolinguistikoaren jabe egiteko, eta, bestetik, hobetzeko alderdiak zeintzuk diren identifikatzeko.

Lehenik eta behin, Elgoibarren euskara gaitasuna eta erabileraren datu kuantitatiboak (**ikus 1 eranskina**), datu kualitatiboak eta 2014-2017ko planaren balorazioa (**ikus 2 eranskina**) aztertu ditugu.

Hona hemen datu horiek labur-labur:

I.1. DATU KUANTITATIBOAK

Hauek izan dira aztertu ditugunak: Euskara gaitasuna eta euskara gaitasunaren bilakaera. Euskara gaitasuna adinaren arabera eta bilakaera. Lehen hizkuntza eta lehen hizkuntzaren bilakaera. Etxeko hizkuntzaren bilakaera. Irakaskuntzako hizkuntza ereduak eta horien bilakaera. Datuok grafikoetan jarri ditugu, azken urteotan euskarak Elgoibarren izan duen bilakaera irudi bidez ikusi ahal izateko. **Ikus 1 eranskina. Datu kuantitatiboak aztertuta, hauxe da egin dugun analisia:**

- Gaur egun, Elgoibarko herritarren **%77 euskaraz ulertzeko gai da**; eta **%69 euskaraz komunikatzeko gai da**. Datuok argi esaten digute euskararen gaitasunak gora egin duela Elgoibarren 1986tik hona. Gainera, gure herriko euskaldunen **%85,14** alfabetatuak dira, eta **%11** erdi alfabetatuak, datu positiboa eta kontuan hartu beharrezkoa ekintzak antolatzerakoan. Bost urtean, 2011tik 2016ra, 10 puntu gora egin dute euskaraz alfabetatuek, beraz, datu esanguratsua.

- Hizkuntzaren gaitasunari adinaren arabera erreparatzen badiogu, Elgoibarko **haur eta gazte gehienak euskaldunak** dira. Euskararen ezagutza maila altuena 34 urtetik beherakoek dute, hauen artean **%81a** euskalduna baita.

- Lehen hizkuntzari dagokienez, 2016ko erroldaren arabera, herritarren **%52**aren lehen hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat da. Ezin dugu ahaztu gaur egun Elgoibarren 42 nazionalitateko jendea bizi dela. Aldiz, **14 urtetik beherakoek lehen hizkuntza euskara da %39,4an, eta biak (euskara eta gaztelania) %15,9an**, beraz, haurren lehen hizkuntzan euskararen igoera txiki bat eman da.

- Irakaskuntzako hizkuntza erduei dagokienez, **D ereduak nabarmen egin du gora**. Azken 20 urteetan, D eredia **%60,2tik %96,7ra** igo da, B eredia desagertu egin da eta A eredia **%3,3ra** jaitsi da. D eredia nagusitu egin da irakaskuntzako maila guztietan, eta horrek, eragin handia izan du ezagutzaren gorakadan, beraz, datozen urteotan Elgoibarko guraso gehienak euskaldunak izango dira. Aipagarria da azken urteetan Lanbide Heziketan egiten ari diren ahalegina D eredia sustatzeko.



- Eta azkenik, erabilerari dagokionez, 2011n eta 2016an egindako neurketen arabera, **kaleko erabilera %37an** mantendu da baina **etxeko erabilerakigoera** txiki bat izan du %43,45etik **%47,74ra**. Hortaz, gaitasunari erreparatzen badiogu, Elgoibarren euskara gehiago erabiltzeko aukerak nabarmen zabaldu arren, kaleko erabilera datuek ez digute hori islatzen. Hona hemen, **2017ko kale-neurketan jasotako emaitza nagusiak**:

- Kanean entzundako **hamar elkarrizketetatik ia lau (%35,9) euskaraz** izan dira.
- **Paseo eta jolaslekuetan** erabili ohi da euskara **gehien (%43,1)**. Jarraian, ikasleen irteerak (%35,2), gazte edo txikiteo giroa (%30,8) eta etxetik kanpoko familia giroa (%28) ditugu. Azkenik, **erosketa giroan** entzun da euskara **gutxien (%23)**.
- **Emakumezkoek (%39,0) gizonezkoek (%31,6)** baino euskara **gehiago** erabiltzen dute.
- **Haurrak (2-14 urte bitartekoak)** dira euskara **gehien** erabiltzen dutenak (%55,3). Jarraian, helduek eta gazteek, eta azkenik, **adinekoek (%24,5)**.
- **Helduek, euren artean** (haurrik gabe) ari direnean, **%22,7an** darabilte euskara. **Haurrak tartean direnean**, berriz, **%58,9ra** igotzen da erabilera.
- Kaleko neurketaz gain, 8-13 urte bitartekoen eskola kiroleko, eskubaloiko eta futboleko entrenamendu batzuk ere neurtu dira. Euskararen **erabilera kirol entrenamenduetan %56,6koa** izan da. Entrenatzaileen erabilera %64,5koa izan da eta jokalaria %63,8koa. Kirol jarduera batetik bestera dagoen aldea nabaria da, eta eskola kirolean ematen da erabilerarik altuena, %76,7koa hain zuzen ere.

I. 2. DATU KUALITATIBOAK

Balorazio kualitatiboa, esparruz esparru.

Esparru bakoitzeko ekintza nagusi eta esanguratsuenak bildu ditugu (**ikus 2. eranskina**), eta horien sintesia jaso dugu txostenean. Ondorengo esparruak landu ditugu: Familia transmisioa. Irakaskuntza. Euskalduntzea eta Alfabetatzea. Arlo sozioekonomikoa (merkataritza, ostalaritza eta enpresak). Aisia eta Kirola. Kulturgintza. Ondarea-lkerketa. Sentsibilizazioa.

Familia transmisioa: Euskara ikasteak euskararen ezagutza bermatzen du, baina ez du erabilera bermatzen. Eta badakigu erabileran pisu handia duela familia-hizkuntzak, beraz, euskara berrindartu eta erabilera handitzeko familia barruko hizkuntza transmisioa oinarrizko bitartekoa da. Elgoibarren, euskara dakiten gurasoek euren seme-alabei euskara transmititzeak daukan garrantziaz jabetzeko, hainbat ekintza egin eta bideratu dira azken urteotan, eta aurrera begira ere ekintza hauek mantendu, indartu edota berriak sortzeko beharra ikusi da, betiere, bikoteen hizkuntza tipologia kontuan izanik. Guraso euskaldunez eta erdaldunez



gain, mistoak ere badira, baita euskara eskolan jaso dutenak ere, eta seme-alabei euskara transmititzeko izugarrizko ahalegina egiten dutenak, beraz, guztiekin lan egitea ezinbestekoa izango da.

Helburua: Hizkuntza kontzientzia lantzea gurasoekin, euskaldunek gehiago erabil dezaten eta erdaldunak ikastera anima daitezen.

Irakaskuntza: Eskolari dagokionez, D ereduaren gorakadak ez du etenik izan. Euskaldunak sortzeko eta euskararen erabilera bultzatzeko ezinbesteko oinarria da eskola, baina ezinbestez aktibatu behar dena familia da. Hortik eta eskolaz kanpoko jardueretatik etorriko da eskolan ikasitako euskararen erabilera areagotzea. Beraz, eta orain arte bezala, beharrezko ikusten da Elgoibarko eskoletan euskararekiko motibazioa handitzeko eta ikasle eta gurasoen arteko harremanetan euskararen erabilera handitzeko ekintzak antolatzea. Hurrengo urteetan ere lantzen jarraitu beharreko esparrua izango da.

Helburua: Alde batetik, euskara prestigiatzea ikasleen artean, eta bestalde, helburu komunikatiboa areagotzeko ekimenen bidez ikasleen euskara erabilera handitzea.

Helduen Euskalduntze-Alfabetatzea: Ez da berria edozein hizkuntzaren berreskurapen prozesuan helduen parte-hartzeak duen garrantzia. Pertsona helduengan eragiteak, haurrengan ere eragina badu. Beraz, garrantzitsua bakarrik ez, euskalduntzea erabakiorra izango da euskararen bilakaeran. Hainbat ekimen burutu dira azken urteotan helduek euskara ikasi eta erabiltzeko aukerak eta guneak izateko: tertuliak, AISA ikastaroak, bekak... Hurrengo urteetan, orain arte egindakoarekin jarraitu eta Elgoibarko edozein herritarri euskalduntzeko erraztasunak eta laguntzak handitzea beharrezkotzat jo da.

Helburua: Euskaraz ez dakitenak euskarara hurbiltzea eta euskaltegian ikasi dutenek praktikan jartzeko erraztasunak izatea.

Arlo sozio-ekonomikoa: Herriko merkataritza-establezimenduek (dendak, tabernak, jatetxeak,...) gizarte harremanak garatzeko aukera ezin hobe eskaintzen diete bezeroei; euskaldundu beharreko esparruak dira, beraz, merkataritza eta ostalaritza. Azken urteotan ekintza xume batzuk bideratu dira esparru horietan eragiteko, baina emaitzak apalak izan dira. Hala ere, hurrengo urteetan egindakoa mantendu/indartu eta ekintza berriak sortzeko beharra ikusi da, alde batetik, paisaia linguistikoa euskalduntzeko, eta bestalde, dendari eta ostalari erdaldunen gutxieneko euskara ezagutza lortzeko, modu horretan bezeroen hizkuntza eskubideak bermatzeko. Enpresei dagokienez, euskara planak diruz laguntzeaz gain, ekintza edo urrats txikiak emateko prest dauden enpresei ere laguntzak eskaini zaizkie baina eskaintza honek ez du eraginik izan. Aldiz, badira herrian euskara planak urteetan abian dituzten enpresak, eta horiekin elkarlanean aritzea aberatsa izan daiteke.



Helburua: *merkataritzan eta ostalaritzan euskarak bere lekua izatea eta bezeroen hizkuntza eskubideak aintzat hartzea. Enpreetan euskarari sarbidea ematea paisaia linguistikoa euskaldunduz, erabilera sustatuz eta lan praktikak euskaraz egin ahal izateko urratsak emanez.*

Aisia eta kirola: Oso garrantzitsua da kirolean eta horrelako jardueretan haurrak euskaraz ohitzea, gero haien kabuz jolasten aritzen direnean askotan antzeko jarduerak egiten dituztelako. Lehendik euskaraz egitera ohitu badira, gero errazagoa izango da jarduera hori egiten trebatu diren hizkuntzan aritzea. Eskolaz kanpoko kirol esparruan bideratu dira hainbat ekintza azken urteotan, euskararen erabilera handitu nahian. Baina, oraindik ere, euskararen erabilera kirol batzuetan urria dela ikusita aurrerantzean ere landu beharreko esparrua da, ezinbestean. Aisialdia euskalduntzeko elkarrekin harreman iraunkorra izatea gakoa izango da, euskaraz egiteko apustua barnera dezaten eta neurriak har ditzaten norabide horretan. Aisialdian gazteentzat erakargarriak izan daitezkeen ekintzak behar dira, horretarako ezinbestekoa da euren parte-hartzea ekintzen diseinu fasean.

Helburua: *kirol arloan euskara prestigiatzea eta haur eta gazteen kirol jarduerak euskalduntzea. Gazteen aisialdian euskaren erabilera handitzea.*

Kulturgintza: Ezin da euskararen normalizazioan eragin kultura erdalduna bada. Euskal kulturak berebiziko garrantzia dauka euskararen transmisioan eta erabileran. Azken urteotan, euskal kulturaren kontsumoa handitzeko ekimenak bideratu dira. Orain arte egindakoa mantendu eta indartu beharra ikusi da, baina datorren urteotan gazteei, bereziki, eta helduei zuzendutako eskaintza kulturaletan eragitea izango da gakoa.

Helburua: *Euskarazko kultur jarduerak sustatzea, bereziki, gazte eta helduei zuzendurikoak, haurrei zuzenduriko guztiak euskaraz baitira.*

Ondarea-lkerketa: Herriko euskarazko ondarea jasotzeko ahalegin berezia egin da azken urteotan, beraz, bide beretik jarraitzea proposatzen da, eta beka bidez, ikerketa berriak egiteko laguntzak eskaintzea.

Helburua: *Ahozko ondarea biltzen eta gizarteratzen jarraitzea. Herriko berbetia hobeto ezagutzeko saioak antolatzea. Ikerketa berriak sustatzea beka edo diru-laguntza bidez.*

Sentsibilizazioa: Haur, gazte eta helduek euskaraz eroso eta natural sentitzeko aldeko ingurunea dutela sumatu behar dute, eta, horretarako, sozializazioa euskaraz ere izatea beharrezko da. Gizartea sentsibilizatzeko eta hizkuntza ohituretan eragiteko, Euskaraldia bezalako ekimenak ongi etorriak dira.

Helburua: *Herritarrak sentsibilizatzea euskararekiko, horrek erabileran eragin dezan.*



2. 2018-2022 PLAN ESTRATEGIKOA

Plan honek Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako jarraibideak, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana hartu du oinarri. Hala, Elgoibarko Udalaren planak zehaztu eta biltzen dituen ekintzak esparruka daude antolatuak eta esparruak, beren aldetik, helburu estrategiko bakoitzaren arabera (euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura). Bestalde, helburu estrategikoez gain, zehar-lerro bi identifikatu eta jaso dira Elgoibarko Euskara Sustatzeko Ekintza Planean, helburu estrategikoak lortzen lagunduko dutenak: sentsibilizazioa eta motibazioa (etengabe eta esparru guztietan landuko dena) eta euskararen zabalkundea.

Hala, ondorengo esparruak izango dira, 2018-2022ko plangintzaldian landu beharrekoak:

Euskararen jabekuntza

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskararen erabilera

4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak-(guri ez dagokigu).
6. Arlo sozio-ekonomikoa
7. Aisia eta kirola

Euskararen elikadura

8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Helburuak lortzeko zehar-lerroak

Euskararen aldeko motibazioa

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

Euskararen zabalkundea

15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa

2.1. PLANAREN HELBURU NAGUSIA

Plan Estrategiko hau une berezian dator, Udalak eta herriko euskalgintza eragileek urte asko daramatzate euskararen erabileraren normalizazioa sustatzen. Urteotan landutakoak eta ezarritako oinarri sendoek batetik, eta oraindik ere euskararen erabileran ikusten dugun aurrera egin ezinak bestetik, erakusten digute jauzi garrantzitsu bat egiteko unea heldu zaigula, ezagutzatik erabilerarako jauzia hain zuzen ere.



Une berezia eta erabakigarria da bai horixe, gure herrian eman nahi dugun jauzia Euskal Herri Osoan ere planteatzen delako. Horra hor Euskaraldia, euskal hiztunak aktibatzea helburu duen ekimena, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra burutuko dena, "11 egun euskaraz" lelopean. Helburua euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzea, baita era guztietako erakunde eta elkarteak euskarazko hizkuntza praktikak babesteko neurriak hartzera bultzatzea ere.

Beraz, indarririk gehien erabilera esparruetan egin behar dela jakinda, plan honen **helburu nagusia euskararen erabilera areagotzea** da, hau da, euskaraz bizi nahi duen herritarrari, horretarako aukerak bermatzen dizkion neurri eta tresnak erabaki eta bultzatzea.

BISIOA (2018-2022)

Elgoibarko herri bizitzan, funtzio eta gune desberdinetan euskaraz hitz egiteko aukerak handitzea, bereziki, kaleko erabileran eragina duten esparruetan (aisia, kultura, merkataritza, ostalaritza...), eta haur eta gazteen eremuan, euskararen erabilera bermatzea.

Helburu hori lortze aldera, lehendabizi, euskarak Elgoibarren bizi duen egoeraren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa egin da; datu horietatik abiatuta, plan estrategikoa diseinatu ahal izateko.

Errealitate ezaguna da euskararen erabilera ezagutza baino apalagoa dela. Datu soziolinguistikoei kasu egiten badiegu, ezagutzaren datua positiboa da, gaur egun Elgoibarren hirutik bi euskaldunak direlako, herritarren %69 hain zuzen ere. Gainera, euskaldunen gehiengoa euskaldun alfabetatua da; alegia, euskaldunen %85ek badakite euskaraz idazten eta irakurtzen.

Erabileran dago gakoa, ordea; azken urteotan egindako kale-neurketen arabera, batez besteko erabilera %37koa izan da, eta 2017an egindako neurketaren arabera, Elgoibarko kaleetan entzundako elkarrizketetan 10etik 3,7 bakarrik izan dira euskaraz.

Hortaz, eta ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar diren arren, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteari eman behar zaio lehentasuna. Elgoibarko gizarteari bere osotasunean dagokio euskara erabiltzeko aukerak eta guneak bermatzea, zaintzea eta sustatzea, eta Udalak zeregin horretan lagundu behar dio. Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 5. artikulua dioena gauzatze bidean jartzeko: "Euskal Herriko herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz".

Euskararen hedapen sozialean aurrerapauso handiak eman diren arren, esparru batzuetan, adibidez, lan arloan, ahula da euskarak duen presentzia. Hala ere, arriskutsua izan daiteke lehentasun garbirik finkatu gabe aldi berean eta esparru guztietara hedatu nahi izatea. Horrexegatik, plan honek lehentasunezko helburuak



eta eragin eremuak identifikatuko ditu, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko eta herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izateko. Gizarte osoaren zeregina den aldetik, herritarren euskararekiko atxikimendua ezinbesteko baldintza da, orain arte egindako ahaleginei jarraipena emateko.

Plan honen diseinuan Elgoibarko Udalak **Eusko Jaurlaritzaren** “Euskara 21. itun berri baterantz” dokumentuaren **printzipio nagusiekin bat** eginda, honako hizkuntza politika hau egin nahi luke:

- **Adostasunean oinarritutako hizkuntza politika**

Izan ere, bi hizkuntza ofizial izateak ez du bermatzen bi hizkuntzen arteko berdintasun-egoera izatea. Gure gizartean aukera berdintasunerantz urrats sendoak eman ahal izateko ezinbestekoa da adostasunez jokatzea, hain zuzen ere, adostasun politiko eta sozial zabal batez jokatzea, eta herritarren atxikimendua izatea.

- **Atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia lotzen dituen hizkuntza politika**

Hizkuntza politikak, eraginkorra izango bada, gizartearen errealitatea hartu behar du aintzat. Eta gizartearen atxikimendua zutoin hartuta, helburu egingarriak ezarri behar ditu, erori gabe ez gehiegikeria antzuetan, ez gutxiegiardia arduragabeetan ere. Alegia: aurrerapena ziurtatzen duten eta egingarri diren helburuak behar ditugu.

- **Herritar guztiei zuzendutako hizkuntza politika**

Euskara herritar guztion ondarea da, eta herritar guztioi dagokigu hizkuntza politika finkatzea eta adostea. Horregatik, ez dugu inor baztertu behar langintza honetatik, etorkizunari begira herritarron bizikidetzeta eta kohesio soziala sendotzen ari baikara euskara biziberritzearekin batera.

Printzipio hauek guztiak aintzat hartuta, euskararen normalizazioa bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak definituko ditu Euskara Sustatzeko Ekintza Plan (ESEP) honek.

2.2. HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA ESPARRUAK

ESEP hiru helburu estrategikotan oinarritzen da: jabeakuntza, erabilera eta elikadura.

Euskararen jabeakuntza

Euskararen jabeakuntza edo eskuratze-prozesuan **hiru esparru** bereiz daitezke: **Familia bidezko transmisioa**, alde batetik, **Euskarazko Irakaskuntza**, bestetik, eta **Helduen euskalduntzea euskalduntze-alfabetatzea**, azkenik.



Hizkuntzaren transmisio prozesuan, familia bidezko transmisioaz gain, gure udalerrian eskolak eta helduen euskalduntzeak berebiziko garrantzia dute, euskara bigarren hizkuntza gisa transmititzen dutelako.

Hizkuntzaren transmisioa gainerako helburu estrategiko guztien oinarrian dago. Azken urteetako bilakaeraren arabera, belaunaldi gazteetan jabekuntza prozesua bermatze bidean dagoela esan daiteke. Etorkizunean ere bermatzen jarraitu beharko dugu eta horretarako hiru bideak (transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea) zaindu beharko ditugu.

Euskararen erabilera

Euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztunen kopurua, hiztunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak, inguruan harreman sare euskalduna izatea, hots, familian, lagunartean, auzoan, kalean, sarean... solaskide euskaldunak izatea, eta, azkenik, hizkuntzarekiko atxikimendua.

Erabiliz zorrotzen den tresna da hizkuntza. Horregatik zaindu behar dira ondo, hizkuntzaren ikuspegitik betiere, familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, lan mundua, administrazioa, merkataritza, hedabideak eta bestelako zerbitzu eta jarduerak.

Hala, etorkizuneko erronka nagusia da herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak euskaraz ere egongo direla bermatzea.

Hau guztia aintzat hartuta, Elgoibarren “Euskararen erabilera” helburu estrategikoaren barruan, **“Arlo sozio-ekonomikoa”, “Aisia eta kirola” esparruak** landuko dira bereziki.

Euskararen elikadura

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da. Euskal hiztunak euskaraz behar ditu ereduak eta edukiak, bere hizkuntza jarduna aberasteko.

Euskararen erabilerak bi arlo nagusi ditu: bata sorkuntza eta bestea kontsumoa. Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez. Beraz, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, horrekin batera, euskarazko kontsumoa indartu.

Alde horretatik, “Euskararen elikadura” helburu estrategikoaren barruan, nagusiki, **“Kulturgintza”, “Corpus-plangintza” eta “Ondarea-lkerkuntza** esparruak landuko dira Elgoibarren.



HELBURUAK LORTZEKO ZEHAR-LERROAK

Helburu estrategikotzat jo diren jabekuntza, erabilera eta elikaduraren ondoan badira haien elikatzen dituzten beste jarduera mota batzuk ere, kontuan izan behar direnak. Horien artean daude euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea.

Euskararen aldeko motibazioa

Euskararen aldeko motibazioak ikaste-prozesuarekin, alde batetik, eta euskararen erabilerarekin, bestetik, zerikusia izan dezake. Izan ere, motibazioa ezinbesteko baldintza izaten da askotan hizkuntza ikasi eta erabiltzeko.

Motibazioa ez da erraz lortzen diren ezaugarrietako bat, baina, behar-beharrezkoa da euskararentzako erabilera-eremuak irabazi nahi badira.

Euskara lehen hizkuntza gisa jaso ez duten herritarrek batzuetan zailtasunak izaten dituzte komunikatzeko orduan, beren ezagutza mailak mugak dauzkalako edo dakitena adierazterakoan faktore psikologiko ezberdinek (lotsa, konfiantza, ziurtasun eza...) komunikazioa oztopatzen dutelako.

Erabileraren ikuspegitik, bestalde, motibazioaren eremuan sartzen dira euskara erabiltzeko argudioak ematea, hizkuntzen erabileran gerta daitezkeen egoerak kudeatzeko estrategiak eskaintzea, eredu onak zabaltzea edo, esate baterako, hizkuntza jakitetik erabiltzera dagoen jauzia egiten laguntzeko estrategiak lantzea.

Motibazioa ez da erraz lortzen diren ezaugarrietako bat, baina, behar-beharrezkoa da euskararentzako erabilera-eremuak irabazi nahi badira. Hori dela eta, plan honetan jasotzen diren ekimenen bitartez, etengabe, motibazioa eta sentsibilizazioa sendotzeko ahalegina egingo da.

Euskararen zabalkundea

Hizkuntzaren irudian eta kultur ekoizpenen prestigioan berebiziko eragina du zabalkundeak. Beharrezkotzat ematen da euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea. Euskara eta euskal kulturaren irudi irekia hedatzeak elebitasuna sendotzea ekarriko du, besteak beste euskaratik urrun sentitu izan diren herritarrei euskarara hurbiltzeko bideak erraztuko baitizkie.

3. EUSKARAREN ERABILERA ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEAK.

Hizkuntza eskubideak aitortzea herritar guztien berdintasuna bermatzearen parte da. Hizkuntza eskubideen tratamenduan ezinbestekoa da progresibotasunaren



irizpidea modu egokian aplikatzea, hizkuntza eskubideen gauzatze prozesua nahitaez mailakatua izango delako, ez egun batetik besterakoa.

Euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunak herritarrek udalarekiko harremanetan egiten duen hizkuntza hautuari, edozein dela ere, erantzun egokia ematea eskatzen du, eta arreta, beraz, aukeratutako hizkuntza ofizialean eskaintzea. Horregatik, Udalak hizkuntza irizpideak eguneratu ditu, eta Udaleko alor guztietan bermatzeko ahalegina egingo du, hala, herritarren hautuari egokiro erantzuteko.

4. HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK.

Datozen urteotan Elgoibarko Udalerrian garatuko den euskara arloko estrategia zehazteko, egun, aintzat hartu beharrekoak identifikatu dira: Egoeraren diagnostikoa, aurreko planean jasotako indargune eta ahuleziak, 2014-17 plan estrategikoaren balorazioa (**ikus 2. eranskina**) eta ESEP 2018-2022 planerako eragile ezberdinei pasatako galdetegian jasotako erantzunak (**ikus 3. eranskina**).

ESEP 2018-2022 planerako galdetegia prestatzeko EMUN zerbitzu enpresaren aholkularitza izan du Udalak

Galdetegiaren helburua datozen 4 urteetan Elgoibarko ESEPen baitan landu beharreko lan-ildo nagusiak definitzea eta ekarpenak jasotzea izan da.

Galdetegiaren edukiari dagokionez, ESEPeko esparru nagusietan, datozen 4 urteetan, lehentasunez landu beharreko lan-ildoak aukeratzeko eskatu zaie hainbat eragile eta norbanakori. Horrez gain, esparru bakoitzean ekarpenak egiteko eta beraiek zertan landu dezaketen zehazteko aukera ere eman zaie.

Galdetegia erantzun dutenak 45 eragile edo norbanako izan dira. Kontuan izan behar da Udalak arlo ezberdinetako (euskalgintza, aisia, kultura, kirola, berdintasuna, kultura, hezkuntza, euskalduntze-alfabetatzea, lan arloa...) talde eta norbanakori luzatu diela galdetegia betetzeko gonbitea (60ri bidali zaie galdetegia).

LEHENETSITAKO HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK:

Datozen urteetan Elgoibarko Udalerrian garatuko den euskara arloko estrategia zehazteko, ezinbestekoa izan dira herriko eragileen ekarpenak eta EMUNen aholkularitza.

Ondorengo tauletan jasotzen dira helburu bakoitzeko estrategiak lehentasunaren arabera zerrendatuta, galdetegia bete duten eragileen erantzunak kontuan izanda.

FAMILIA	TRANSMISIOA,	IRAKASKUNTZA	ETA
EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA			

* **Guraso euskaldunak transmisioaren garrantziaz kontzientziatzea eta eredu bihurtzea.**



- Familia giroan euskarazko jarduerekin gozatzeko egoerak eta ekintzak sustatuz.(Gurasoek eta haurrek euskaraz egiteko guneak sortuz eta elikatuz).
- Gurasoen seme-alabekiko hizkuntza jokabideetan eraginez.
- Guraso berriak sentsibilizatzea eta motibatzea, euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutaraziz eta eskura jarritz.
- Euskaraz ez dakiten gurasoak euskara ikastera bultzatuz eta eurentzako ikastaroak antolatuz.

*** Euskararen erabilera sustatzea eskola esparruan.**

- Nerabe-gazteekin motibazioa landuz: motibazio praktikoa, sinbolikoa eta kulturala.
- Gazteengan eragitea, eurentzako erreferente diren pertsonengan oinarrituz eta euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotuz.
- Ikasle etorri berriak euskarara hurbiltzeko programak antolatuz: Berbazulo egitasmoa...
- Lan-munduarekiko zubiak eraikitzea, euskarazko praktikak areagotuz eta lankidetzaren proiektuak bultzatuz.
- Eskolako ekintzetan eta ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatuz: eskoletako euskara planak, ahozkotasunabertsogintza...
- Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza indartuz, ikastetxeetako euskara planen bidez.

*** Euskalduntze-alfabetatzerako erraztasunak eta laguntzak ematea.**

- Etorri berri helduentzako euskara ikastaroak antolatuz: Aisa ikastaroak...
- Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak: diru-laguntzak, bekaak....
- Ikasleei ezagutzatik erabilerara dagoen jauzia egiten lagunduz: Tertuliak egitasmoa, gelaz kanpoko ekimenak...
- Eskaintza berrien aukera landuz: sektorekako ikastaroak...

AISIA ETA KIROLA

*** Haur, nerabe eta gazteen eskolaz kanpoko erabileran eragitea.**

- Kirolean euskararen presentzia eta erabilera sendotuz, antolaturiko jardueretan eta entrenamenduetan.
- Haur eta nerabeen aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartuz (gazte erreferenteak ezagutzera emanaz, gazteak eurak protagonistak diren ekintzak antolatuz, haur eta gazteei zuzenduriko ikuskizunak euskaraz antolatuz...)



- Entrenatzaileak eta hezitzaileak euskaraz trebatzeko ikastaroak antolatuz.
- Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zainduz.

*** Helduentzako aisialdiko euskarazko eskaintza handitzea.**

- Erakundeen laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara ere komunikazio hizkuntza izan dadin bermatuz.
- Helduen aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartuz (kultur eskaintzan bereziki).
- Elgoibartarrentzat kirol arloan erakargarriak diren jarduera eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotuz.

ARLO SOZIO-EKONOMIKOA: LAN-MUNDUA, OSTALARITZA ETA MERKATARITZA

*** Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera gehitzea.**

- Merkataritza-ostalaritzan, kanpoko irudian eta idatzizko zein ahozko komunikazioan euskararen presentzia sustatuz, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko.
- Dendari eta Ostalariei baliabideak eskainiz.
- Dendari eta ostalariekin euskararen erabilera handitzeko ekintzak antolatuz.
- Bezero euskaldunekin harremana euskaraz izan dadin ekimen ludikoak abian jarritz.
- Sektorekako ikastaroak (laneko oinarritzko komunikazio gaitasunetan trebatzeko ikastaroak) antolatzea merkatarientzat eta ostalarientzat.

*** Enpresetan euskararen erabilera handitzea.**

- Enpresetan euskararen erabilera handitzea, euskara planak sustatzeko kanpainak eginez eta praktika onak zabalduz.
- Euskara planak eta ekintzak sustatzeko baliabideak eskainiz.
- Lanbide heziketako ikasleen lan praktikak euskaraz izateko laguntza eta baliabideak eskainiz enpresei.
- Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak emanaz.

KULTURGINTZA, ONDAREA ETA IKERKUNTZA

*** Euskal Kulturgintza sustatzea**

- Euskarazko kultura eskaintza eta kontsumoa (hitzaldi, antzerki...) sustatuz.
- Euskarazko hedabideen ezagutza eta hedapena bultzatuz: Barren astekaria, barren.eus...



- Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak...) abian jartzea edo indartzea.
- Euskarazko irakurzaletasuna bultzatuz: irakurketa tailerrak, hitzaldiak...

*** Elgoibarko ondarea (berbetia, toponimia, ahotsak) gizarteratzea.**

- Jasotako ondarea gizarteratuz.
- Elgoibarko euskalkia zainduz eta zabalduz: Ahotsak egitasmoa, berbetiaren ikastaroa...
- Hizkuntza-paisaia zainduz eta leku berriei izena jartzerako orduan edota jarrita daudenak zuzentzeko aholkularitza-bideak jarritz.
- Euskararen inguruko ikerketak burutuz edo diruz lagunduz: neurketa eta ikerketa soziolinguistikoak, euskararen ezagutza, erabilera eta hizkuntza aberasteko bekak...

SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

*** Euskararen erabilera areagotzea.**

- Herritarren arteko hizkuntza ohituretan eta motibazioan eragiteko herri mailako egitasmoak burutuz eta sustatuz: Euskaraldia...
- Entitate-elkarteetan hizkuntza irizpideak eta kontzientzia landuz.
- Komunikazioa landuz euskaraz eskaintzen dena ikusgarri eta erakargarri egiteko.

Jarritako helburu eta estrategia horiek erakusten digutenez, **kalea eta jendartea izango da datozen urteetarako joko-zelaia**. Horretan, beraz, herritarren eta herri-elkarte eta ekimenen parte-hartzea eta laguntza ezinbestekoa izango da. Izan ere, **herria euskalduntzea erronka kolektiboa da** eta Elgoibarren aipatzekoak dira Udalak eginkizun horretan bidelagun dituen elkarte eta taldeak: ikastetxeak, euskaltegiak, 365 talde eragilea, kirol eta kultur elkarteak... baina bereziki, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteak, berarekin baititu Udalak hitzartuta hainbat ekimen eta egitasmo, urtez urte adostu eta burutzen direnak. Ezin ahaztu ezinbestekoa dela **administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana**, haur eta nerabeentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu, eta euskara eta euskal kultura herrian sustatu nahi badira.

Plan estrategiko hau, baina, ez da ezerezetik abiatzen. Urteetan lan handia egin da hiru arlo estrategikoetan (transmisioan, erabileran eta elikaduran) eta datozen urteetan bigarrenetan indar gehiago jarriko den arren, ez dugu ahaztu behar estu-estu lotuta daudela hirurak eta elkarren beharra dutela.

Hori gogoan dela, **plan estrategiko honek erabileran eta kontzientziazioan egingo duen lanaz gain, ez ditu bazterrean utziko transmisioa eta**



elikadura. Arlo horietan eutsi egingo zaio urteotan jorratutako bideari eta azpi-arlo batzuk indartu egingo dira.

5. ONDORIO NAGUSIAK: lehenetsitako esparruak

Erabilera indartzea da lehentasuna. Adostasun zabala dago honetan, eta adituek esandakoak gogora ekarriko ditugu.

a) Dakitenek euskaraz egitea da lehentasuna: hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimenak bideratzea, ohiko hizkuntza euskara izango den guneak sortzea, ditugun erabilera-guneak aberastea... Horiek izan behar dute planaren oinarri.

b) Euskal elebidunak sortzea helburu. Ahozkoak lehentasuna.

Lehentasunezkoa, dugu euskal elebidunak babestu eta ugaltzea. Eta, ondorioz, ahal den eremu gehienetan (eremu formal zein informaletan), ahozko jarduna aberasteko bideak jorratu beharko dira.

c) Nerabe-gazteak eta eurekin harremana duten helduak (guraso, hezitzaile, irakasle, entrenatzaile...) dira lehentasun. Arrazoi ugari daude gazteak lehentasunezkoztat jotzeko: euskararen hazkundera gazteen eskutik etortzen jarraituko duelako; gazteen artean daudelako euskaldunen proportziorik altuenak; euskaraz hazi, formatu eta hezitako belaunaldiak izango ditugulako; gazte euskaldun guztiak euskaraz alfabetatuak direlako; unibertsitate ikasketadun gazteen kopurua altua izanik, etorkizuneko gizartearen gidari eta liderrak gazteen artean daudelako.

Ez badugu nahi gazteek euskara soilik hezkuntzarekin eta derrigortasunarekin lotzea, beharrezkoa genuke euskarari buruz duten/dugun ideia aldatzea. Euskarazko jarduna erakargarri izan behar zaie, zerbait desberdina eskaini behar die euskarak gazteei, beste hizkuntzek ez duten xarma. Euskara gazteen ohituretara, disfrutatzeko erabiltzen dituzten eremuetara eta teknologia berrietara eraman behar dugu.

Hala ere, **ezin ditugu helduak ahaztu:** haur eta gazteen euskalduntzearen itxaropena helduen euskalduntzean datza, eta oso bereziki haur eta gazteekin harreman zuzen eta ugaria duten helduen hizkuntza-jokaeraren euskalduntzean, hau da, euskaraz hitz egiteko aukera dutenean, euskaraz egiteko joera eta ohitura duten pertsonen jokabidean.

d) Denbora faktore garrantzitsua da. Bizitzan denbora tarte handiena hartzen duen hark du lehentasuna hizkuntzaren ikuspegitik ere. Hala, adostasun zabal samarra dago haur eta nerabeetan “etxea, eskola, eskolaz kanpoko jarduerak” hirukoa lehentasunezko eremu izendatzerakoan. Eremu horiek dira, komunikabide eta kultura-kontsumoarekin batera, haur eta gazteen hizkuntza erabilera eragin handiena dutenak.



Adinean gora egin ahala, familiak eta eskolak eragina galduko dute eta beste esparruek hartuko dute lehentasuna.

Helduetan, berriz, lan-munduak hartuko du ume eta gazteetan eskolak duen lekua.

e) Bizipen positiboak. Hizkuntzarekiko harremanetan pasatzen dugun denbora oso garrantzitsua izanik, ez da hori faktore bakarra: Harremanetan gauden hizkuntza orok sortzen ditu hiztunarengan bizipenak. Berebiziko garrantzia du euskara bizipen positiboekin lotzeak.

6. 2018-2022 EKINTZA PLANEAN JASOTAKO ESPARRUAK ETA NEURRIAK

Txosten honen hasieran azaldu bezala, planaren hurrengo atal honetan hiru helburu estrategikoei eta bi zehar lerroei loturiko neurri-ekintzak jasotzen dira, 16 esparrutan sailkatuta. Hona hemen:

Helburu estrategikoak

Euskararen jabekuntza

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskararen erabilera

4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak-(guri ez dagokigu).
6. Arlo sozio-ekonomikoa
7. Aisia eta kirola

Euskararen elikadura

8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Helburuak lortzeko zehar-lerroak

Euskararen aldeko motibazioa

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

Euskararen zabalkundea

15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa



Jarraian, esparruak eta neurriak (ESEPen jarraipenerako aplikazio informatikoan ezarritako atalak eta zenbakien ordena jarraituz):

I. Familia bidezko transmisioa

I.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea.

I.1.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.

I.1.7. Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza jokabideak lantzea.

I.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea.

I.3.1. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea.

I.3.3. Familia, eskola eta ingurunearen arteko elkarreragina sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz.

2. Irakaskuntza

2.2. Euskarazko ikasketen eskaintza sendotzea.

2.2.1. Lanbide heziketan euskarazko eskaintza indartzea, horretarako irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz.

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea.

2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez).

2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea.

2.5.2. Lan-munduarekiko zubiak eraikitzea, euskarazko praktikak areagotuz eta lankidetzatza proiektuak bultzatuz.

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.

2.6.2. Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko programak garatzea, sentsibilizazioaren mesedetan.

3. Euskalduntze-alfabetatzea

3.3. Finantzaketa sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea.

3.3.1. Finantzaketa egonkorrarekin loturik, euskalduntze prozesuan aldatzen doazen premiei malgutasunez erantzuteko sistema bat eratzea.

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak.

3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Tertuliak, Gurasolagun) zabaltzea



4. Administrazioa (Udalaren Erabilera Planean jasota dago esparru hau, beraz, ez dugu hemen sakonduko).

5. Gune geografiko euskaldunenak (guri ez dagokigu).

6. Arlo sozio-ekonomikoa

6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea.

6.4.2. Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan.

7.1.3. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea.

7.3. Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea.

7.3.1. Haur eta gazteentzako antolatzen diren ekitaldietako euskara kalitatezkoa dela bermatzea (bai ekitaldia, bai artisten/ begiraleen euskararen ezagutza eta erabilera).

7.9. Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea.

7.9.2. Erakundeen laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea.

8. Liburugintza

8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea.

8.1.4. Herri liburutegietan euskarazko liburuen presentzia bermatzea.

9. Kulturgintza

9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.

9.1.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea.

9.2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea.

9.2.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak...) abian jartzea edo indartzea.

9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea.

9.4.1. Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea.



10. Publizitatea

10.2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea.

10.2.1. Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniazko hedabideetan ere.

11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

11.3. Herriko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea.

11.3.4. Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza-bideak jarritz.

11.3.5. Toponimia ofiziala eta zuzenaren erabileraren jarraipena egitea eta, berau erabiltzearen garrantziaz jabetzeko, kanpainak egitea, eta ikasmaterialak eta jokoak prestatzea.

11.5. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea.

11.5.1. Tokian tokiko euskalkiak zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz.

11.6. Euskararen kalitatea zaintzea.

11.6.3. Euskarazko kartel eta errotuluetan erabiltzen den euskararen zuzentasuna bermatzeko bideak jartzea.

12. Hedabideak

12.5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.

12.5.3. Hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatzea, haien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte-eragina handitzeari begira.

13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

13.2. Interneten euskarazko edukiak sustatzea.

13.2.7. Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea.

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.

14.1.3. Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz. Euskaraz egiten diren ekitaldiak bultzatzea.

14.1.4. Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala.

14.1.5. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaltzea, tokian tokiko euskalkiari lekua eginez.

14.1.7. Euskaraldia eta Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea.



14.2. Familia transmisioa.

14.2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko.

14.4. Euskalduntze-alfabetatzea.

14.4.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.

14.6. Arlo sozioekonomikoa.

14.6.1. Enpresekin eta enpresariaren elkarteekin elkarrizketak egitea, euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren azaltzeko, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden, etab.

14.6.3. Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko.

14.7. Aisia eta kirola.

14.7.4. Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

14.8. Liburugintza.

14.8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea.

14.9. Kulturgintza.

14.9.1. Kultura elkarteekiko elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko.

14.9.2. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatzea.

14.9.5. Herritarrengan eragitea euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gidak, argitalpen txikiak.

14.11. Teknologia berriak.

14.11.1. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten.

15. Barruko proiektzioa

15.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere.

15.2.1. Kultura edo kirol jarduera jendetsuetan euskarazko komunikazioa (idatzizko zein ahozkoa) bermatzea.

16. Kanpoko proiektzioa

16.7. Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea.

16.7.1. Zabalkunde handiko ikuskizunetan, kongresuetan edota ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea.

17. Bestelakoak

17.1. ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak.

17.1.3. ESEPen kokatzen ez diren ikerketak egitea hizkuntza diagnostikoari, planifikazioari eta abarri buruz.



7. EKINTZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana osatzen duten neurri eta ekintza-proposamenen betetze-maila aztertu eta ebaluatu beharko du aurrerantzean Udalaren Euskara eta Kultura Batzordeak. Ebaluazioa egiterakoan, zehaztu egingo da alde batetik, aurreikusi diren ekintzetatik zeintzuk burutu diren eta, bestetik, helburua lortzeko balio izan duten ala ez.

Plan honen jarraipena Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Saitetik ere egingo da 2017ko ekainaren 9an kaleratutako aginduan ikus daitekeenez (*AGINDUA, 2017ko maiatzaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017-2018ko aldian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena*).

Planean bertan, lehenetsuneko ekintzak proposatzen dira. Hala ere, hau ez da proposamen itxia. Egoeraren eta unearen arabera ekintzak egokitu beharko dira, berriak gehituz edo daudenen egitekoa berraztertuz. Hortaz, Elgoibarko Udalak bere inguruko errealitatea kontuan hartuta neurrien lehenetsuna edota gauzatze garaia zehaztuko du urtez urteko kudeaketa planean.